



Arartekoaren 2018R-2777-17 Ebazpena, 2018ko martxoaren 26koa; horren bidez, Bilboko Udalari gogorarazten zaio herritarrei erantzuteko beharra duela, kasu honetan, bere familiarekin burututako gizarte esku-hartzea amaitu osteko espedientearen inguruko informazioa eskatzen duen herritar bati.

Aurrekariak

Herritar batek Arartekoarengana jo du horren esku-hartzea eskatzeko, zehazki, Bilboko Udalak ez diolako idatziz eta ofizialki erantzun 2017ko otsailaren 17an egindako eskaerari; eskaera horren bidez, informazioa eskatzen zuen bere familiarekin burututako gizarte esku-hartzea bertan behera uzteko kausen inguruan, baita horrekin lotutako administrazio-espedientea itxi izanari buruzko informazioa ere.

Hala eta guztiz ere, aurkeztutako dokumentazio ugariaren azterketa egin ostean, Arartekoak ondorioztatu zuen kexagileak honako hau eskatu zuela zerbitzu ugaritan (gizarte-zerbitzuetan, esaterako): bere alde aritu zitezten emazte ohiaren aurrean; izan ere, gurasoak ez zetozen bat hainbat konturi zegokienez semearentzako egokiena zer zen erabakitzean, eta emaztea iritziz aldatzea nahi zuen. Horrenbestez, interesdunari ez ziotenez semearen guraso-ahala kendu, adostasunik ezari irtenbidea emate aldera auzitegira jo zedin gomendatu zioten, bere eskaera ez baitzen sartzen hura aurkeztu zuen administrazioen eskumenetan.

Herritar horrek Arartekoarengana jo du berriz ere eta, oraingoan, kexa zehatzagoa aurkeztu du: otsailaren 17ko erreklamazioari ez ziotela "idatziz" erantzun. Aurreko prozeduran egindako izapideak direla tarteko, Arartekoak badaki, kasua korapilatsua izan arren, pertsona horri behin baino gehiagotan ahoz erantzun zaiola, eta familiarekin esku hartzeko planaz arduratzen diren profesionalen taldearekin (oinarrizko gizarte zerbitzuko arduradunarekin, psikologoarekin, etab.) ere bildu izan dela. Hala ere, berriz ere dio ez duela erreklamazioari lotuta erantzun idatzi eta ofizialik edo egindako esku-hartzeari buruzko espedientearen kopiarik jaso.

Egitateak ikusita, Arartekoak Bilboko Udalarengana jo zuen eta gogorarazi zion kexaren sustatzaileari erantzun behar ziola, egokien zeritzen terminoetan. Halaber, adierazi zion behar beste arrazoitu behar zuela erantzuna, lege-ikuspegitik, betebeharririk ez betetzeko erabakia justifikatuko luketen arrazoiak egongo balira.

Horren ostean, udalak epe barruan eta modu egokian erantzun zuen eta berriz ere berretsi zuen kexagilearen eskaerari idatziz ez erantzuteko hartutako erabakia; hala, hartutako erabakia justifikatzeko, adierazi zuen kexagileari informazio zehatza eman zaiola formatu desberdinetan esku-hartze osoan zehar. Horrez gain, erabakia hartzeko, horren profil psikologikoa eta azkenean erantzun horrek semeari eragingo liokeen kaltea aintzat hartu dira, administrazio guztiak behartuta daudelako adingabearen interes gorenaren errespetatzera.





Gogoetak

1. Bilboko Udalak erantzunean azaltzen du udalaren esku-hartzea eta kexagilearen semea babesteko espedientea 2015eko azaroan hasi zirela, Adingabeen Fiskaltzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Haurtzaro Zerbitzuak eskatuta. Zehazki, espedientearen helburua zen adingabearen balizko babesgabetasun-egoera aztertzea eta, egoera hori existitzekotan, egoeraren larritasun-maila ezartzea. Hala, balorazio horren emaitza izan zen ez zegoela babesgabetasun-arriskurik eta hori zuzenean jakinarazi zitzaizen, luze eta zehatz-mehatz, bai aitari, bai amari. Kexagilearen kasuan, informazioa emateko elkarrizketa 2017ko otsailaren 15ean egin zen eta bere espedientea itxi zen 2017ko martxoan.

Jarraian, udalak hauxe azaldu du: "conforme al "Procedimiento Municipal de Intervención con Infancia y Adolescencia en situación de Riesgo", se contestan por escrito aquellas situaciones donde, tras hacer el correspondiente diagnóstico, se valoran como graves. El caso de D. (...), su devolución, al concluir el diagnóstico que los progenitores resultaban protectores de su hijo y no dar riesgo, se hizo de forma verbal.

No obstante lo anterior, si algún progenitor solicita que se le proporcione por escrito el resultado de la valoración, el Área de Acción Social accede a dicha petición, entendiéndolo que es una petición ajustada a derecho"

Hain zuzen ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 53.1.a) artikuluan, hauxe aitortzen du interesdunak administrazio prozeduran dituen eskubideen artean:

"a) Noiznahi jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan; administrazio-isiltasunak zer esanahi duen, Administrazioak ez badu epean ebazpen espresurik ematen ez jakinarazten; zer organo den eskudun instrukzioa egiteko, hala badagokio, eta ebazpena emateko; eta zer izapide-egintza eman dituen. Eskubidea izango dute, orobat, prozeduretan jasotako dokumentuak eskuratzeko eta haien kopia lortzeko.

Administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoz dutenek eskubidea izango dute aurreko paragrafoan aipatzen den informazioa kontsultatzeko Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrean, zeinak irispide-atari baten moduan funtzionatuko baitu. Prozeduretan sartutako dokumentuen kopiak emateko Administrazioak duen betebeharra konplitutzat joko da haiek eskura jartzen direnean administrazio eskudunaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrean edo dagozkion egoitza elektronikoetan."





Xedatutakoaren arabera, kexagileak, prozedurako alde interesdunetako bat delarik, balorazioaren emaitza idatziz jasotzeko eskubidea izango luke; izan ere, udalak eskubide hori aitortzen die erantzuna idatziz eskatzen duten pertsona guztiei, nahiz eta balorazioak babesgabetasun-arriskurik ez dagoela ondorioztatu eta informazioa ahoz eman.

2. Udal erakundeak hori egin ez izana justifikatzeko emandako arrazoiak kexagilearen inguruabar pertsonalekin daude lotuta; horiek direla-eta, jotzen dute hauxe eragingo zukeela: "horren ondorioz, daukan obsesio-dinamika indartuko litzateke, zehazki, semearen ustezko babesgabetasunaren inguruko iritzia pertsonalari dagokionez eta, profesionalen ustez, pertzepzio hori okerra da".

Egia da, aurrekarietan adierazi egin den bezala, kexaren sustatzaileak desadostasuna erakutsi duela udal gizarte zerbitzuen jarduketarekiko (baita bere kasuan esku hartu duten pertsona eta erakunde guztien jarduketarekiko ere); horregatik, zenbait idazki aurkeztu ditu eta horien edukia berretsi du. Era berean, esku hartze horretan, eskaini zizkieten lan terapeutikoko hipotesi guztiak ukatu zituen.

Balorazio hau erantzunean azaldutako egitate gehiagotan eusten da eta, hori dela-eta, erabaki zen kexaren sustatzaileak eskatzen zuena idatziz ematea ez onartzea, zehazki, arrazoi honengatik: "horrela, obsesio-dinamika bat elika lezake eta horrek bere egoera pertsonala kalte lezake eta, hortaz, baita bere semearen ongizatea ere". Hala, kexagilearen semearen balizko babesgabetasun-egoeraren balorazioaren emaitza idatziz ez emateko erabakia hartzeko kausatzat eman zen honakoa: "adingabearen interes gorena errespetatzea".

Haurren Eskubideen Batzordeak haurrak bere interes gorena lehentasunezko gaitzat hartua izateko duen eskubidearen inguruko *14. Ohar Orokorrean azpimarratzen du (6. puntua) haurraren, neska edo mutilaren, edo nerabearen interes gorena kontzeptu hirukoitza dela:*

- a) *Un derecho sustantivo: el derecho del niño a que su interés superior sea una consideración primordial que se evalúe y tenga en cuenta al sopesar distintos intereses para tomar una decisión sobre una cuestión debatida, y la garantía de que ese derecho se pondrá en práctica siempre que se tenga que adoptar una decisión que afecte a un niño, a un grupo de niños concreto o genérico o a los niños en general. El artículo 3, párrafo 1, establece una obligación intrínseca para los Estados, es de aplicación directa (aplicabilidad inmediata) y puede invocarse ante los tribunales.*
- b) *Un principio jurídico interpretativo fundamental: si una disposición jurídica admite más de una interpretación, se elegirá la interpretación que satisfaga de manera más efectiva el interés superior del niño. Los*



derechos consagrados en la Convención y sus Protocolos facultativos establecen el marco interpretativo.

- c) *Una norma de procedimiento: siempre que se tenga que tomar una decisión que afecte a un niño en concreto, a un grupo de niños concreto o a los niños en general, el proceso de adopción de decisiones deberá incluir una estimación de las posibles repercusiones (positivas o negativas) de la decisión en el niño o los niños interesados. La evaluación y determinación del interés superior del niño requieren garantías procesales. Además, la justificación de las decisiones debe dejar patente que se ha tenido en cuenta explícitamente ese derecho. En este sentido, los Estados partes deberán explicar cómo se ha respetado este derecho en la decisión, es decir, qué se ha considerado que atendía al interés superior del niño, en qué criterios se ha basado la decisión y cómo se han ponderado los intereses del niño frente a otras consideraciones, ya se trate de cuestiones normativas generales o de casos concretos.*

Definizio horren arabera, ez da nahikoa adingabearen interes gorena erabaki bat hartzeko printzipiotzat aipatzearekin; izan ere, beharrezkoa da, kasu zehatz bakoitzerako, erabakiak pertsona horrengan edo adingabeengan izan ditzakeen ondorioak (positiboak edo negatiboak) aztertzea eta horiek justifikatzea. Azertzen ari garen kasuan, eskatutako dokumentazioa ez emateko erabakia justifikatzeko, aurreko puntuan ezarri den bezala kexagileak jasotzeko eskubidea duena, semearen interes gorena kontuan hartzen bada, nahitaezkoa da interes horren balorazioa nola egin den azaltzea. Hau da, horrela justifikatzeko, adierazi behar da zeintzuk diren aztertutako elementuak, zein irizpiderekin eta nola haztatu diren haur zehatz horren interesak (kexagilearekin semea) beste iritzi batzuekin alderatuta (aitaren eskubidea murgilduta egon den prozeduraren informazioa edukitzeko). Udalak ez du informazio hori ematen erantzunean eta datu bakarra da erabakiak haurrengan izan dezakeen eragina; horrez gain, kexagileari idatziz emandako erantzunean ahoz esandako gauza bera jasotzen da: "horrela, obsesio-dinamika bat elika lezake eta horrek bere egoera pertsonala kalte lezake eta, hortaz, baita bere semearen ongizatea ere"². Hortaz, Arartekoak uste du udalak ez duela behar beste azaldu zergatik kexagilearen eskubidea den idatzizko jakinarazpena kaltegarria izan litekeen horren semearen ongizatearentzat. Hortaz, ez dira arrazoi nahikoak ematen legez justifikatzeko Bilboko Udalak kexagilearen asmoak betetzea ukatu izana.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

² Azpimarratutakoa Arartekoarena da.





GOMENDIOA

Bilboko Udalak kexagileari erantzuteko, termino egokietan, 2017ko otsailaren 17an gizarte zerbitzuei zuzendutako informazio-eskaerari, hain zuzen ere; eskaera hori bere familiarekin burututako gizarte esku-hartzeko espedientea ixteko erabakiarekin dago lotuta.

